

UNIDAD DE ESPAÑA Y JUICIO ÉTICO

Jose Maria Setien
Erein, Donostia, 2004

“Espainiako Estatuak ez gaitu euskaldunak espainiar herritar bezala tratatzen. Estatu bat herritarren zerbitzurako eraturiko antolakundea da, eta Espainiako Estatuak gure zerbitzurako lan egin beharrean etsai bezala tratatzen gaitu” (I. Uria-ri elkarrizketa, *Berria*, 04-VIII-4, 6. or.)

Jose M^a Setien-ek, Donostiako Goetzain izateari utzi zionetik, euskal gatazkaren hainbat alderdi aztertzeari ekin dio. Bere hausnarketan ondorioak zenbait liburutan argitaratu ditu. Liburu honetan, Espainiako Elizak egindako adierazpenen harira, espainiar estatuaren batasunari buruzko gogoetak biltzen ditu.

Jose Maria Zunzunegui-k idatzitako hitzaurreak (“Aportes a la memoria histórica”), historian zehar Espainiaren eta Euskal Herriaren artean izandako harremanen ikuspegia ematen du. Horrela, espainiar historialariek nazio bakar eta banaezinaren mitoa funtsatzeko egindako lana aztertzen du. E. Hobsbawm-en tesi modernistei jarraituz, espainiar nazioaren modernotasuna aldarrikatzen du. Marko teoriko horretan oinarrituz, Nafarroako erreinuaren konkista, euskararen zapalkuntza, espainiar inperioaren miseriak, Frantziar Iraultzaren eta erromantizismoaren eragina... aztertzen ditu, azaletik bada ere. Laburbilduz, euskal nazionalismoari aplikatzen zaizkion

maxima berak aplikatzen dizkie Zunzunegui espainiar nazioari eta nazionalismoari.

Amaitzeko, gogor kritikatzeko Espainiako botere politikoaren eta elizboterearen arteko loturak, espainiar nazionalismoaren dimentsio katolikotradizionalista azpimarratuz, eta horren esentzialismoa agerian uzten du.

Utz dezagun hitzaurrea albo batean, eta hel diezaiozun Setienek idazlanari. Haren ustez, ezin da ukatu Espainiaren batasuna arazo politikoa denik. Arazo horrek, ordea, bi aurpegi ditu: espainiar estatuaren nortasun politikoa arazoa da, bai batasun horri eutsi nahi diotenentzat, bai batasun hori urratu nahi dutenentzat. Horren aurrean eta eztabaida zintzoaren mesedetan, Setienek kontzeptuak eta terminoak argitzearen alde egiten du.

Hasteko, nazionalismoaren gaia indarkeriaren gaiak desberdindu behar da. Setienek ustez, nazionalismoak ez du, berez, indarkeriarekin loturarik. Alegia, fenomeno nazionalista ez dago, izatez eta derrigor, indarkeriari lotuta. Hortaz, bete-betean politikoak diren helburuak bilatzen dituen nazionalismoa helburu horien arabera da erradikala, eta ez erabiltzen dituen bitarteko arabera. Programa politiko erradikal horri (botere politikoa eskuratze-ko ahaleginari) Setienek “nazionalismo *light*” bat kontrajartzen dio (eduki poli-

tikorik gabe garatzen den nazionalismoa). Haren ustez, programa nazionalista erradikala zilegi da.

Halere, zilegitasun horren aurrean, alderdikeriaz eta nahasmenez betetako iritziak jaso ohi ditugu. Batetik, nazionalismo erradikal horri zilegitasuna kentzeko asmoz, indarkeriaren aurkako jarrera espainiar estatuaren batasunaren aldeko ideologiarekin nahasten dela argitzen du. Hortaz, indarkeriaren kontra dagoenak derrigor egon behar du Espainiako batasunaren alde. Bestetik, balizko euskal estatu nazionala gauzatuz gero, nazionalismoari propio zaizkion aberrazioak garatuko liritekeela esaten da. Horren arabera, espainiar estatuaren batasunak zuzenbide-estatuaren balioekin bat egiten du (*ontasunarekin*), baina balizko euskal estatuak buruz buru joko luke justiziarren, berdintasunaren eta askatasunaren aurka (aukera politikoki hori *gaizotasunarekin* identifikatzen da, alegia).

Baina zein on etiko-moral ditu berekin estatuaren batasunak? Batasunari eraso eginez eragindako kalte morala salatu nahi duenak galdera horri erantzun behar dio. Erantzun horren bila, *estatu* eta *nazio* kontzeptuen arteko desberdintasunak argitzen saiatzen da Setien. Estatuak artifizioa da, baina ez asmakeriaren zentzuan (puntu honeetan Anderson-ek *Imagined Communities* liburu klasikoan Gellner-i egindako kritikarekin bat egiten du Setienek). Estatuaren ezaugarri funtsezkoa subiranotasuna da. Momentu historiko jakin batean eta gizakiaren borondatez sortua bada ere, estatuak naturalizatzen joan da; ez behin betikotasunaren edo aldaezintasunaren zentzuan, funtzionatzen duen egitura politikoki egonkorta bezala baizik.

Hartara, estatuak izaera funtzionala du. Alegia, giza garapenaren zerbitzuan existitzen da eta “on komuna” babesteko xedea berekin du. Funtzionaltasun horren arabera onar daitezke, “on etiko” gisa, estatuak eta horri atxikitako subiranotasuna. Zentzu honetan, estatuaren ebaluazio etikoan funtzionaltasuna asetzea funtsezko irizpidea da. Estatuak ona edo etikoki zuzena dela esan daiteke baldin eta “on komuna” bermatzen badu. “On komuna” hiritarren eskubide indibidual eta kolektiboen onarpenean mamitzen da. Estatuak, eskubide indibidual horiek bermatzeko, on kolektiboak sortu eta garatzeko ardura du.

Nazioak, bere aldetik, existitzeko eta egoki antolatzeko botere politikoa behar du. Memoria historikoan, kulturaren, balioetan, erakunde propioetan, mito eta tradizioetan, aurretikoen oroi-penean, etorkizunari lotutako parte-hartzean eta identitatean oinarritzen da nazioa, besteak beste. Estatuak nazioaren zerbitzura dago, horretan oinarritzen baita. Nazioaren zerbitzuan estatuak hiritarren ongizatearen funtzioari zuzen erantzun ahal izango dio.

Hala eta guztiz ere, Setienek iritziz, nazioa ezin da estatuarekin identifikatu. Bi fenomeno desberdin dira, eta estatu baten subiranotasunaren batasuna ezin da estatu horren hiritarren batasun nazionalarekin berdindu. Estatu nazioaniztunak horren adibide dira, espainiarra barne. Batasun nazionala eta batasun estatala nahasteak edo identifikatzeak judizio etiko zuzenak egiteko ezgai bihurtzen gaitu. Espainiar estatuak espainiar nazioarekin berdintzeak interes politikoki bati erantzuten dio, eta aurretik zehaztu dugun arazoari ebazpen faltsua ematen dio.

Hari horretatik tiraka, Setienek ondo-koa ondorioztatzen du: estatuak, Espainiaren batasun nazionala aldarrikatuz, hiritarren kontzientzia-askatasunaren aurka egiten du; eskubide hori urratzen du eta, hortaz, bere funtzioak baztertera uzten ditu. Are gehiago, batasuna lortzeko estatuaren bitartekoak erabiltzeak gaur egungo gizarte demokratikoen ezaugarri den pluralismoari erasotzen dio. Estatu-nazionalismo hori kritikagarria iruditzen zaio Setieni. Haren pentsamenduan, pluralismoa ez da egitate soil bat (gure gizartean gauza, balio, pentsamolde, ikuspuntu desberdinak existitu existitzen direla egitatea da). Harentzat, sustatu egin behar den programa da pluralismoa. Ikuspuntu honetatik baloratzen du positiboki nazionalismoa (esplizituki esaten ez duen arren), eta estatuaren hegemonismoa salatzen du.

Estatu bateko hiritar guztien nazio-tasun-aukera bermatzea da estatuaren funtzioetako bat. Printzipio hori haustea oker larria da Setieneren ustez. Euskal Herriaren sezesioa ezin da moralki negatiboki baloratu espainiar estatuaren batasunaren aurka egiten duelako, euskal hiritarren "on komuna"ri erasotzen dion neurrian baizik. Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko gatazkak izaera politikoa du, eta gatazkaren konponbidea politikoa izango da. Setienek elkarrizketa eta negoziazioa aldarrikatzen ditu.

Beraz, espainiar nazioaren eta estatuaren batasuna ez da auzi etikoa, politikoa baizik. Ondorioz, bertatik eratorritako arazoak ezin dira Elizaren erabaki etiko-moral lotesleena bitartez ebatzi. Elizak ezin ditu, aukera politiko jakinak babesteko, auzi politikoak auzi moral bailiran mozorrotu. Setieneren iritziz, Elizak ezin du eztabaida politikoan

parte hartu, auzi politikoen ikuspuntu etikoa lantzeko ez bada. Ondorioz, etika erlijioaren eta politikaren artean dagoen zubi bakarra dela esan daiteke. Bide batez, liburuan zehar argi geratzen da, autorearen ustez, Politika erlatiboa eta historikoki determinatua dela, eta Etika, aldiz, unibertsala eta absolutua. Setienek dioenez, estatua, nazioa eta eskubide kolektiboak fenomeno artifizialak dira (gradu desberdinean, baina azken batean artifizial); giza eskubide indibidualak, ordea, naturalak.

Liburua irakurterraza da, sarritan sermoi-tonua gailentzen den arren. Hutsuneei begira, diskurtsoaren egituraketa nahasia da pasarte batzuetan. Haren alde esan daiteke irekitzen dituen gai gehienak ixtea lortzen duela. Beste alde batetik, kontzeptuak argitzeko ahalegina egin arren, batzuetan erdibidean geratzen da. Nazioaren eta estatuaren arteko harremana finkatzeko, adibidez. Azkenik, saiakera bati dagozkion erreferentzia akademikoen hutsunea sumatzen da (aipuak eta erreferentzia bibliografikoak). Testua ez da gogoeta espekulatibo hutsa, eta dibulgazio-bokazioa ezin da zorroztasun faltarekin nahastu.

Hasieran aipatu bezala, liburu hau egitasmo orokorrako batean kokatzen da. Erlijioaren, etikaren eta politikaren arteko harremanei buruzko liburuak ugaltu egin dira azkenaldian (Setieneren lanez aparte, Xabier Andonegi-ren lana aipatu nahi nuke, Andonegi, X. (2002) *Ética y conflicto vasco*, Bilbo: Arantzazuko Frantziskotarrak). Gaurkotasun politikoari erantzuteaz gain, aurrera begira, egitasmo honek bide berriak ibili beharko ditu benetan oparora izateko. Interes handiko bi ikergai ikusten ditut nik, gutxienez: nazionalismoaren

eta erlijioaren arteko harremanen historia, eta nazionalismoak erlijioari propio zitzaizkion forma batzuk nola jaso dituen aztertzea (sakralizazioa, erri-tualak...).

Jose M^a Setien ez da Desmond Tutu, baina haren idazlanaren balioa goraiatu behar da. Bizi dugun gataz-karen izaera politikoa agerian utziz, honetan eta honen moduko gatazke-

tan Elizak joka dezakeen papera mugatuz, zehazki Espainiako Elizaren esku-hartzea kritikatu eta abertzale-tasun erradikal baten zilegitasuna aitortuz, euskaldun gehienontzat egia diren iritziak azaltzera mugatzen da. Halere, Setieneren diskurtsoa ongi arra-zoitua da eta kontzeptuak argitzeko egiten duen saiakera balekoa da. Gaur egun, ekimen soil horrek bere balioa badu.

Iñaki Soto Nolasko